

# DURANGOKO UDALEKO EUSKARA PLANA

## 2013-2017

Udal barneko Euskararen Erabilera Plana



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

**Aurkibidea**

Testuingurua .....	5
Euskara Plana 2013-2017: Urratsak eta Helburuak .....	6
Hizkuntza eskakizunen egiaztatzeari buruzko datuak .....	7
<b>1. DURANGOKO UDALEKO LANPOSTUEN EKINTZA-PLANA</b>	
<b>1. Zerbitzu orokorrak .....</b>	<b>9</b>
1.1. Kontratazioa eta Ondarea.....	9
1.2. Giza baliabideak .....	10
1.3. Idazkaritza .....	12
1.4. Informatika .....	14
1.5. Gizarte ekintza .....	17
1.6. Hirugarren adina .....	18
1.7. Berdintasuna - Andragunea .....	19
1.8. Kultura.....	21
1.9. Gazteria eta Kirolak.....	24
1.10. Turismoa .....	25
<b>2. Zerbitzu ekonomikoak .....</b>	<b>28</b>
2.1. Kontu-hartzailletza .....	28
2.2. Kontabilitatea.....	29
2.3. Diru-bilketa .....	29
<b>3. Zerbitzu teknikoak .....</b>	<b>30</b>
3.1. Teknikariak .....	30
3.2. Administrazioak.....	31
<b>4. Udaltzaingoa.....</b>	<b>32</b>
4.1. Administrazioa .....	32
<b>5. Astarloa Kulturgintza .....</b>	<b>33</b>
5.1. Arte eta Historia Museoa .....	33
5.2. San Agustin Kultur Gunea.....	35
5.3. Udal Biblioteka .....	36
<b>6. Durango Kirolak .....</b>	<b>38</b>
<b>7. Bartolome Ertzilla Musika Eskola.....</b>	<b>40</b>
<b>8. Erakunde Autonomoen koordinaketa .....</b>	<b>42</b>
<b>2. EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO NEURRIAK</b>	
2.1. Langileen hizkuntza ezagutza, prestakuntza eta kontratazioa .....	45
2.2. Harremanak .....	46
2.3. Udal batzarrak, aktak eta dokumentazioa.....	47
2.4. Udal erregistroko agiriak .....	47
2.5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak.....	47
2.6. Idazkunak, errotulazioa, leku-izenak eta bide-seinaleak .....	48
2.7. Administrazio-kontratuak .....	48
2.8. Udal instalazioak edo herri-lurra erabiltzea.....	49
2.9. Diru-laguntzak.....	49
2.10. Udalak antolaturiko ikastaro, tailer eta hitzaldiak.....	49
2.11. Barne-harremanak.....	50
2.12. Baliabide informatikoak .....	50
2.13. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa .....	50

**ERANSKINA: DURANGOKO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA**

## TESTUINGURUA

Durangoko Udalaren 2013-2017ko Euskara Planak ondorengo lege-testuetan du iturburua:

- **10/1982 LEGEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEN DUENA**, zeinaren bitartez, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteeek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen diren.
- **6/1989 LEGEA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKOA**, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarriak ezartzen ditu.
- **86/1997 DEKRETUA, EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEKO HERRI-ADMINISTRATIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUENA**. Dekretu honek ezartzen du administrazio bakoitzaren eginkizuna dela “Euskararen erabilera normalizatzeko planak”<sup>1</sup> zehaztea, abian jartzea eta dagozkion neurriak hartzea.
- **2008-2012 EUSKARA PLANAK EZARRITAKO EGINKIZUN NAGUSIAK:**
  - a) Erakundearen hizkuntza egoera aztertzea: hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta langileen euskara-maila.
  - b) Administrazio-atal elebidunak eta euskarazkoak identifikatzea eta hartu beharreko neurriak zehaztea: ahozko zein idatzizko harremanak jendaurreko ekitaldietan, argitalpenetan, hizkuntza paisaian eta, oro har, udal erakundeen gainerako jardueresparruetan.
  - c) Kontratazio-arloko neurriak, alegia, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek betebeharreko hizkuntza-irizpideei dagozkionak.
- **EUSKARAREN UDAL ARAUDIA**, 2010eko uztailaren 27an onartua  
Euskara Planek euskararen erabileraren inguruan jasotako betebeharez gain, Euskararen udal araudiak betekizun berriak erantsi zizkion ordura arte zeudenei.

Hau guztia oinarri harturik, Durangoko Udalak V. Plangintza-aldiari dagokion Euskara Plana 2013-2017 garatu du. Aurreko planetan ezarritako lerro-bideak egungo egoerara eta beharrianetara egokitu dira, orain arte eman diren urratsak egonkortu eta sendotze aldera.

Aurreko euskara planetan eta udaleko euskararen araudian jasotako hizkuntza-irizpideak euskara plan berrian barneratuko ditugu, proposamen egokiak direla frogatu delako; nolahi ere, badaude aspektu batzuk gehiago indartu beharrekoak, batez ere, hizkuntza-irizpideak betetzen ote direnari buruzkoak.

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera, “Euskara Plana” deituko zaie.

**EUSKARA PLANA 2013-2017: URRATSAK ETA HELBURUAK**

**EUSKARA PLANA 2013-2017** egiteko orduan, udaleko eta erakunde autonomoetako lanpostu guztien eginkizunak aztertu ditugu, hizkuntzarekin zerikusia duten eginkizunak hain zuzen ere. Lanpostu bakoitzaren fitxa egin dugu eginkizun nagusiak zerrendatuz eta eginkizun horiek euskaraz burutu daitezzen proposamenak eginez. Halaxe, 112 ekintza proposatu ditugu udaleko sail guztietako lanpostuei begira. Ekintzok, departamentuz departamentu, halaxe banatzen dira:

<b>KOD.</b>	<b>ADMINISTRAZIO-SAILA</b>	<b>KOP.</b>
1	Zerbitzu orokorrak	62
2	Zerbitzu ekonomikoak	8
3	Zerbitzu teknikoak	7
4	Udaltzaingoa	1
5	Astarloa Kulturgintza	17
6	Durango Kirolak	5
7	Musika Eskola	6
8	E. A.-en koordinaketa	6

Ekintza plana udaleko atal-buruekin eta langileekin adostu dugu. Batzarrak banan-banan edo taldeka egin ondoren, ekintza-proposamenaren zirriborroa bidali diegu langile eta atal-buruei, eta hauen iradokizunak jaso ostean, behin-behineko testua prestatu dugu. Esan beharra dago ezin eskertuzko laguntza izan dugula udal langile, atal-buru zein ordezkari politikoen aldetik.

**4 HELBURU ESTRATEGIKO / 112 EKINTZA**

<b>HELBURU ESTRATEGIKOA</b>	<b>EKINTZAK</b>
1. Euskara zerbitzu hizkuntza izatea	70
2. Euskara lan-hizkuntza bilakatzea	17
3. Udal programen euskarazko eskaintzea handitzea	18
4. Herritarren euskarazko eskaria handitzea	7

**1. HELBURUAK** elebitasuna bermatzea du jomuga, alegia, administrazioak bi hizkuntzetan eskaini behar dituela bere zerbitzu guztiak. Aurreko planean ere jasotzen zen.

**2. HELBURUAK** administrazio barruko lana euskaraz egitea aurreikusten du. Hau da, barruko lana euskaraz egitea eta kalera begira, kasuan kasu, euskaraz edo ele bietan ateratzea. Hau ere jasotzen zen aurreko planean.

**3. HELBURUA**, batez ere, udalak eskaintzen dituen ikastaro, tailer, programa eta gainontzeko produktuei begira dago, eta bere xedea da, euskarazko programak %50a izatea gutxienez, eta portzentaje hau urterik urte handitzen joatea.

**4. HELBURUAK** hauxe du xede: udalaren eta herritarren arteko harremanetan euskararen presentzia handitzea. Herritar asko, euskaldunak izan arren, eta batez ere idatziz, gaztelaniaz zuzentzen dira udal administrazioa, askotan inertzia eta inoiz ezjakinez.

Jarraian zerrendatzen eta zehazten diren 112 ekintza hauetako bakoitza **ADMINISTRAZIO-ATAL** bati lotuta dago, **HELBURU ESTRATEGIKOA** atxiki zaio, **ARDURADUNA** du eta, halaber, **HASIERA-**, **AMAIERA-** eta **JARRAIPEN-DATA**.

**HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGIAZTATZEARI BURUZKO DATUAK**

Administrazio atala	Langile Kopurua	Lanpostu hutsak	Derrigortasunak	Egiaztatutako Hizkuntza Eskakizuna				Egiaztatu gabeko Hizkuntza gaitasuna			
				4HE	3HE	2HE	1HE	0	1-7	AIf0	AIf1
			%								
Zerbitzu Orokorrak	55	4	87	3	23	12	2		8		
Zerbitzu Ekonomikoak	13	1	100		6	6					
Zerbitzu Teknikoak	17	0	88	2	7	5			3		
Lan Brigada <sup>2</sup>	27	5	7		2		6		12	2	
Herritarren Segurtasuna	47	0	81		7	29	3	2	5	1	
Erakunde Autonomoak	2	0	50		1	1					
Musika Eskola	26	0	81		17	5			3	1	
Udal Euskaltegia	9	0	100	7	2						
Astarloa Kulturgintza	11	0	100	2	7	2					
Udaleko Kirol Erakundea	21	0	76		5	3	4		4	2	
<b>GUZTIRA</b>	<b>228</b>	<b>10</b>	<b>83</b>	<b>14</b>	<b>77</b>	<b>63</b>	<b>15</b>	<b>2</b>	<b>35</b>	<b>6</b>	

Numero absolutuetan hauxe ateratzen da:

Langile kopurua	Lanpostu Hutsak <sup>3</sup>	D D guztira	D D Egiaztatua <sup>4</sup>	Egiaztatu gabe <sup>5</sup>			Salbuetsita <sup>6</sup>	Derrigortasunik ez eta egiaztatuta <sup>7</sup>
				Kop.	-1	-2		
228	34	164	111	12	9	1	9	20

Hortaz, Durangoko Udalaren hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila %83koa da.

$$\frac{\text{DD egiaztatutak}}{\text{DD guztira} - \text{L. hutsak}} = \frac{111}{164-34} = \%83$$

<sup>2</sup> Erakundearen hizkuntza eskakizunen guztirako portzentajea ateratzerakoan ez da Lan Brigadako lanpostuak kontuan hartu, administrazio atal berezia delako eta hizkuntza eskakizunik ezartzen ez zaizkielako; beraz, guztirakoan 228 barik 201 zenbatu da.

<sup>3</sup> Lanpostu hutsak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita dute, eta lanean ari diren aldi baterako langileek egiaztatuta dute beren lanpostuei dagokien H.E., beraz, egiaztatutako kopurua 111 barik 145 izango litzateke.

<sup>4</sup> Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenen artean, alegia, 111 langileren artean, 30ek, bere lanpostuari dagokion HE baino altuagoa daukate egiaztatuta.

<sup>5</sup> Egiaztatu gabeko 12 langileen artean, 9k, HE bat gutxiago daukate egiaztatuta; 1ek HE bi gutxiago eta 1 euskaldun zaharra da.

<sup>6</sup> 3 adinagatik daude salbuetsita, eta beste 6 gaitasun ezagatik.

<sup>7</sup> 1 HE: 7; 2 HE: 2; 3 HE: 4 eta 4 HE: 7

## 1. ZERBITZU OROKORRAK

### 1.1. KONTRATAZIOA ETA ONDAREA

#### 1.1.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATUETAN HIZKUNTZA-BALDINTZAK TXERTATZEA

Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen administrazio-kontratueta hizkuntza-baldintzak txertatuko dira, hain zuzen ere, administrazio kontratueta karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan.

Kontratu-motak: obra-kontratuak, herri-lanen emakidak, hornikuntza-kontratuak, aholkularitza eta zerbitzu kontratuak eta zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Administrazio-kontratueta hizkuntza-baldintzak txertatzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kontratazio eta ondare arloko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 1.1.2. ONDARE ERANTZUKIZUNEN ESPEDIENTEAK

Herritarrek ondare erantzukizuna eskatzen egiten dituzten salaketen gaineko erantzunak sartzen dira atal honetan. Orain arte, %90a inguru gaztelaniaz aurkezten dira. Prozesu honetako parte dira: prozedura hasten duen dekretua, txostena eta ebazpen dekretua, dokumentu nagusi edo garrantzitsu moduan. Azken hau, eskariaren arabera, euskaraz edo gaztelaniaz egin daiteke arazo handi barik. Halaber, froga "testifikala" egon daiteke, grabatu egiten dena euskaraz edo gaztelaniaz. Beraz, salaketa euskaraz egiten dutenei euskaraz erantzuteko modua dago.

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskarazko eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Eskari-orrian honako hau tartekatu daiteke: "Nahiko zenuke espediente honetako dokumentazioa euskaraz jaso".
<b>ARDURADUNA</b>	Kontratazio eta ondare arloko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 1.1.3. UDAL ALDERDIEK EGINDAKO ESKARIEI ERANTZUN

Euskaraz egiten diren eskariak euskara hutsez erantzuten dira, eta azkenaldi honetan, gaztelaniaz egindakoei bi hizkuntzetan erantzuten zaie.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Euskarazko eskariei euskaraz erantzun eta gainerakoei bi hizkuntzetan
<b>ARDURADUNA</b>	Kontratazio eta ondare saileko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.2. GIZA BALIABIDEEN SAILA

### 1.2.1. LANPOSTUEN ZERRENDA, PLANTILLA ORGANIKOA ETA LEP

Guztiak ele bietan ateratzen dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Lanpostuen zerrenda, plantilla organikoa eta LEP euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.2.2. HAUTAKETA PROZESUAK

Hainbat parte ditu: iragarkiak BAOra, oinarriak, azterketak, aktak eta emaitzak argitaratzea. Aktak ez dira kalera ateratzen, eta gaztelania hutsez egiten dira. Iragarkiak eta emaitzak bi hizkuntzetan egiten dira. Eta azterketa bera euskaraz egiteko aukera eskaintzen da. Oinarriak elebidun ateratzen dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Hautaketa prozesuko iragarkiak eta emaitzak bi hizkuntzetan argitaratzea. Eta azterketak euskaraz egiteko aukera eskaintzea. Oinarriak euskaraz ere sortu.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.2.3 TREBAKUNTZA IKASTAROAK ANTOLATZEA

Trebakuntza ikastaro guztiak gaztelaniaz eskaintzen dira. Proposamena da zenbait ikastaro euskaraz ere eskaintzea, IVAPen bidez edo beste era baten.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Pertsonal sailak bideraturiko trebakuntza ikastaroak euskaraz ere eskaintzea.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.2.4. TXOSTENAK

Departamentu barrukoak eta ogasun batzorderako egiten dira. Orain arte, biak gaztelaniaz egin dira. Proposatzen da batzorderako txostenak euskaraz ere egitea euskara zerbitzuaren laguntzarekin.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Ogasun batzorderako txostenak euskaraz egitea, modu progresiboan.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.2.5. DEKRETUAK**

Ele bietan egiten dira, plantilla bidez.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Dekretuak euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.2.6. KONTRATU ADMINISTRATIBOAK**

Ele bietan daude.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Kontratu administratiboak ele bietan egitea.
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna eta administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.2.7. KONTRATU LABORALAK**

Langile bakoitzari galdetuko zaio euskaraz edo gaztelaniaz nahi duten jaso.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Kontratu laboralak euskaraz ematea, langileei galdetu eta gero
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna eta administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.2.8. NOMINAK**

Euskara hutsez edo ele bietan daude. Langile bakoitzari galdetuko zaio zelan jaso nahi duen. Ele bikoetan ordena aldatuko da, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Euskara hutsezko nomina bidali, udaleko langileei galdetu ostean zein hizkuntzatan jaso nahi duten. Gainerakoei ele bietan bidaliko zaie
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna eta administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.2.9. IDATZIAK**

Ziurtagiriak, kontratu-denuntziak... ele bietan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Ziurtagiriak, kontratu-denuntziak, ofizioak,... ele bietan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Giza baliabideetako arduraduna eta administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan



### 1.3. IDAZKARITZA

#### 1.3.1. OSOKO BILKURAK: GAI-ZERRENDA ETA AKTAK

Bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Osoko bilkuretako gai-zerrendak eta aktak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Idazkaria, administraria (S) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 1.3.2. DEKRETUAK

Bulego teknikoak bideraturiko espedienteen inguruan egiten dira, beti ere, herritarren eskariari erantzunez. Eskaria euskaraz egiten denean euskaraz egiten da espedientea, eta idazkaritzan ere euskaraz egiten da dekretua.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Herritarrek euskaraz egiten dituzten eskariei erantzuteko egiten diren dekretuak eta jakinarazpenak euskaraz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Bulego teknikoko dagokion teknikaria eta administraria (S)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 1.3.3. EBAZPENAK

Euskaraz edo gaztelaniaz egiten dira, eskariaren arabera.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Ebazpenak euskaraz edo gaztelaniaz egitea, eskariaren arabera
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (S) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 1.3.4. EZKONTZA ZIBILAK

Euskaraz edo gaztelaniaz egiten dira, eskariaren arabera.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Ezkontza zibilak euskaraz edo gaztelaniaz egitea, eskariaren arabera
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (S)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.3.5. HIRIGINTZA: GAI-ZERRENDAK ETA AKTAK**

Gai-zerrendak bietara egiten dira, baina aktak gaztelaniaz bakarrik.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Hirigintza batzordeko akta euskaraz eta gaztelaniaz jasotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (A) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.3.6. DEKRETUAK ETA BAORAKO IRAGARKIAK**

Bi hizkuntzetan egiten dira, plantilla bidez.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Dekretuak eta BAOrako iragarkiak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (P) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.3.7. OGASUNA: GAI-ZERRENDA ETA AKTAK**

Bi hizkuntzetan egiten dira: euskara zerbitzuak itzultzen ditu.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Ogasun batzordeko gai-zerrenda eta aktak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (P) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.3.8. DEKRETUAK ETA OFIZIOAK**

Dekretu gehienak espazio publikoa erabiltzeko baimen-eskarien erantzunak dira, eta euskaraz edo gaztelaniaz egiten dira, eskariaren arabera. Gauza bera ofizioei dagokienez.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Euskaraz erantzutea espazio publikoa erabiltzeko euskaraz egindako eskariei, eta bi hizkuntzetan gaztelaniazkoei. Gauza bera ofizioei dagokienez
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (P) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.3.9. EGIAZTAGIRIAK ETA BAORAKO IRAGARKIAK**

Bi hizkuntzetan egiten dira: euskara zerbitzuak itzultzen ditu.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Egiaztagiriak eta BAOrako iragarkiak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (P) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.4. INFORMATIKA

### 1.4.1. GORABEHERAK

Udaleko erabiltzaileek bidalitako gorabeherei jarraipena egin eta irtenbidea eman. Hizkuntza batean edo bestean egiten da, erabiltzaileak bidalitako mezua araberak. Euskarazko galdera-erantzunen portzentajea handitzeko honako hau galdetu dakieke langile euskaldunei: ‘aurrerantzean erantzuna euskaraz jaso nahi duzu?’

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskarazko eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Udal langile euskaldunen gorabeherei euskaraz erantzuteko prozedura martxan jartzea, euskarazko galdera-erantzunen portzentajea handitzeko: ‘aurrerantzean erantzuna euskaraz jaso nahi duzu?’
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (N) eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.4.2. GIDA-LIBURUAK (SAIL BARRUKOAK)

Orain arte gaztelaniaz egiten dira. Sail barruan geratzen dira, baina ahaleginak egingo dira, apurka-apurka, hauek ere euskaraz egiteko.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Gida-liburuak euskaraz egitea modu progresibo batean
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (N) eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.4.3. ERABILTZAILAENTZAKO INFORMAZIO-OHARRAK ETA GIDA-LIBURUAK

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Informazio-oharrak eta gida-liburuak euskaraz eta gaztelaniaz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (N) eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.4.4. E MAILAK BIDALTZEA UDALEKO LANGILEEI

Udaleko erabiltzaileei bidalitako e mailak euskaraz edo gaztelaniaz bidaltzen dira. Euskarazkoen portzentajea handitzeko honako hau galdetu dakieke langile euskaldunei: ‘aurrerantzean gure e maila euskaraz jaso nahi duzu?’.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Udal langile euskaldunei bidalitako mezu elektronikoei euskaraz erantzuteko prozedura martxan jartzea, euskarazko e mailen portzentajea handitzeko: ‘aurrerantzean gure e mailak euskaraz jaso nahi dituzu?’
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (N.E.) eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan






**1.4.5. HARREMANAK KANPOKO TEKNIKARI ETA HORNITZAILEEKIN**

Kanpoko teknikari eta hornitzaileekin egiten diren harremanak euskaraz edo gaztelaniaz egiten dira, solaskidearen hizkuntza-gaitasunaren arabera beti ere. Harremanen euskarazko portzentajea handitzeko honako hau galdetu dakieke kanpoko solaskideei: ‘aurreantzean gure harremanak euskaraz izatea nahi duzu?’

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskarazko eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Prozedura bat martxan jarri informatika sailak kanpoko teknikari eta hornitzaileekin dituen harremanetan euskarazko portzentajea handitzeko: ‘aurreantzean gure harremanak euskaraz izatea nahi duzu?’
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (N.E.) eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.4.6. HORNIKUNTZAK ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK EUSKARAZ JARRI**

Pantaila bidezko hizkuntza paisaian euskararen presentzia normalizatzea: fitxatzeko erlojua, aplikazio informatikoak, Microsoft Office, Windows sistema eragilea,...

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Aplikazio informatikoak euskaraz ere egotea, lehengoak zein berriak: <ul style="list-style-type: none"> <li> Fitxatzeko erlojua</li> <li> TAO, PRESTO, AUTOCAD...</li> <li> Durango Kirolak: Omesa eta Fitness aplikazioak</li> <li> Udaltzaingoa: Eurocop</li> <li> Microsoft Office (2003, 2007) eta Windows sistema eragilea euskaraz jartzea halaxe eskatzen duten udal langileei.</li> </ul> Horniketa berriak eskatzen direnean euskaraz ere egon daitezela eskatu
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (J. I.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.4.7. TXOSTENAK**

Informatika saileko buruak txostenak aurkezten ditu: informazio batzordeetarako, aurrekontuak... Txostenok euskaraz eta gaztelaniaz joan behar dute, eta horretarako euskara zerbitzuak laguntza eskainiko dio.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Informatika sailak udal batzordeetara aurkezten dituen txostenak bi hizkuntzetan joatea
<b>ARDURADUNA</b>	Datu prozesuko teknikaria (J. I.) eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.4.8. PAC ETA SICAPEKO PLANTILLAK EUSKARATZEA**

PACen erabiltzen diren plantilla asko bi hizkuntzetan daude, baina ez denak. Idazkariarekin hitz egin beharra dago protokolo bat diseinatzeko plantilla guztiak bi hizkuntzetan egon daitezen. Bi dokumentu mota egongo dira: euskara/gaztelania bata eta euskara bestea, eskatzaileak euskaraz eskatzen duenean euskara hutsez erantzuteko. Departamentu-buruek jakinaraziko dute zein plantilla diren euskaratu beharrekoak (Igor Zorrakin, Jokin Palazio,...)

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	PACeko eta SICAPEko plantillak euskaratzeko protokoloa ezarri. Bi modelo: 1. eusk/gaz; 2. eusk. Gaztelaniazko espedienteak bi hizkuntzetan joango dira, eta euskarazkoak euskara hutsez
<b>ARDURADUNA</b>	Idazkaria, Hirigintza diziplinako arkitektoa (I.Z.), aurrekontu teknikaria (J.P.) informatika saila eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.5. GIZARTE EKINTZA

### 1.5.1. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZARTE EKINTZA

Esparru ezberdinak jorratzen dira: elkartegintza, minusbaliatuak, neguko aterpea, bortizkeria jasan duten emakumeentzako pisua, ...

Hitzarmenak egiten dira: JAED, Caritas, Geu be, Herria, Bateginez...

Dirulaguntzak ematen dira: Autismoa, Gorabide... 14 elkarte inguru.

Hitzarmenak eta txostenak bi hizkuntzetan egiten dira. Barruko txostenak gaztelaniaz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Diru-laguntzak eta hitzarmenak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Herri politiketako administraria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.5.2. IMMIGRAZIOA

Ildatziko produkzioa: txosten teknikoak eta programak. Txosten batzuk batzorderako egiten dira eta beste batzuk departamentu barruan geratzen dira. Programok prentsa edo kartel bidez hedatzen dira. Kasu bietan euskara zerbitzuaren laguntza behar du, eta klaseekin edo trebakuntza pertsonalarekin jarraitzea proposatzen da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Batzorderako diren txosten teknikoak eta programak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Gizarte ekintzako arduraduna, inmigrazio teknikaria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.5.3. ADMINISTRAZIOA

Administrariak Gizarte Ekintza batzordeko akta jasotzen du euskaraz eta gaztelaniaz. Notifikazioak egiten ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, PACen bidez.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Gizarte ekintza batzordeko aktak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzea. Notifikazioak euskaraz eta gaztelaniaz bidali
<b>ARDURADUNA</b>	Herri-politiketako administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.6. HIRUGARREN ADINA

### 1.6.1. BATZORDERAKO TXOSTENAK

Bi hizkuntzetan egiten dira eta.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Batzordetarako txostenak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	3. Adinekoen teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.6.2. SAIL BARRUKO TXOSTENAK

Gaztelaniaz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Hirugarren adineko barruko txostenak euskaraz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	3. Adinekoen teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2014
<b>BETETZE-DATA</b>	2014
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.6.3. SAIL BARRUKO KOMUNIKAZIOA

Orokorrean, gaztelaniaz egiten da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Hirugarren adineko bulegoen arteko komunikazioa euskaraz izatea
<b>ARDURADUNA</b>	3. Adinekoen teknikaria eta laguntzailea (C.L.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.6.4. ADINEKOEI ZUZENDUTAKO PROGRAMAK ANTOLATZEA

✚ Zahartze aktiborako programa:

Hainbat monitore erdaldunak dira eta ikastaroak gaztelaniaz bakarrik antolatzen dira. Beste batzuetan euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen da:

- Psikomotrizitate ikastaroa, euskaraz eta gaztelaniaz
- Oroimena suspertzeko ikastaroa, euskaraz eta gaztelaniaz
- Antzerkia, gaztelaniaz (taldeko kide guztiak erdaldunak dira)
- Masajea eta Baliabide Naturalak, gaztelaniaz egiten dira baina posible da euskaraz egitea irakaslea euskalduna delako.
- Gurutze gorria, gaztelaniaz
- Xake, gaztelaniaz
- Internet – Sare Sozialak, euskaraz eta gaztelaniaz
- Argazki Digitalak, euskaraz eta gaztelaniaz

✚ Nagusiak 8.0. programa. Autonomia pertsonala mantentzeko: euskaraz eta gaztelaniaz, nagusien arabera. Terapeutak euskaldunak dira eta bietan egiten dute.

✚ Zaindu Programa eta Esperientzia Institutua: Formakuntza ikastaroak gaztelaniaz.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Irakasle elebidunak kontratatzea. Ikastaroen %50a euskaraz eskaintzea eta jendea euskarazko ikastaroetan izena eman dezan bultzatzea
<b>ARDURADUNA</b>	3. Adinekoen teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.7. BERDINTASUNA - ANDRAGUNEA

### 1.7.1. BILERAK

Lau dira:

- ✚ Udaleko berdintasun batzordea (politikoa)
- ✚ Berdintasuneko kontseilua (Bilgune f., Andereak, politikariak eta partikularrak)
- ✚ Herritarren mahaia (herriko elkarteak)
- ✚ Mahai teknikoak (udaleko teknikariak)

Elhuyarrek aholkularitza teknikoak eskaintzen du: laguntza teknikoak, bileretan parte hartzen du eta gomendioak ematen ditu.

Batzar guztietako dokumentazioa bi hizkuntzetan doa, aktak ere bai.

Herritarren mahaia, batez ere, gaztelaniaz egiten da. Kontseilua ere bai, baina azalpenak euskaraz ematen dira. Andraguneko dinamizatzailerak bertoko ekintzen berri ematen duenean Kontseiluan, ahozko aurkezpenak euskaraz egiten ditu, idatzizko euskarria, ordea, ele bietan (power point) aurkezten da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Batzarrotako dokumentazioa eta aktak bi hizkuntzetan ematea
<b>ARDURADUNA</b>	Berdintasuneko teknikaria eta Andragunekoak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.7.3. IKASTAROAK ANTOLATZEA

Berdintasun sailak hainbat ikastaro antolatzen ditu urtean zehar. 2012-2013 urtealdian, esaterako, 20 ikastaro: 10 euskaraz eta 10 gaztelaniaz.

Kudeaketa lanei dagokienez: Euskarazko taldeekiko komunikazioa euskara hutsezkoa da, eta gaztelaniazko taldeekiko komunikazioa ele bietan egin ohi da.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Euskarazko ikastaroen eskaintza handitzea, erakargarritasuna eta kalitatea bilatuz
<b>ARDURADUNA</b>	Berdintasuneko teknikaria eta Andragunekoak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.7.3 JARDUERAK

Martxoak 8, ekainak 28, azaroak 25,... eta holakoetan euskararen presentzia ziurtatzea eta handitzea.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Urtean zehar antolaturiko jardueretan euskararen presentzia ziurtatzea
<b>ARDURADUNA</b>	Berdintasuneko teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan



**1.7.4. TXOSTENAK ETA IDAZKIAK**

Txostenak eta idatziak bi hizkuntzetan egiten dira. Barneko idatziak, Andragunekoak, euskara hutsez egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Txostenak eta idazkiak bi hizkuntzetan egitea. Departamentu barruko idatziak euskaraz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Berdintasuneko teknikaria eta Andragunekoak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.7.5. ADMINISTRAZIOA**

Administrariak Berdintasun batzordearen eta Kontseiluaren aktak jasotzen ditu euskaraz eta gaztelaniaz. Notifikazioak egiten ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, PACen bidez.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Berdintasun batzordearen eta Kontseiluaren aktak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzea. Notifikazioak euskaraz eta gaztelaniaz bidali
<b>ARDURADUNA</b>	Herri-politiketako administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.8. KULTURA



### 1.8.1. AKTAK ETA BATZORDERAKO TXOSTENAK

Aktak eta batzorderako txostenak bi hizkuntzetan jasotzen dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Aktak eta batzorderako txostenak bi hizkuntzetan jasotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.8.2. BARRUKO TXOSTENAK


Batzuk bi hizkuntzetan egiten dira eta beste batzuk gaztelaniaz.

-  Hitzarmenak: Hezkuntza, kultura, jaiak
-  Berdintasun sailarentzako ebaluaketa txostena.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Departamentu barruko txostenak euskaraz jasotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.8.3. DIRU-LAGUNTZAK ETA HITZARMENAK

Diru-laguntzak zein hitzarmenak bi hizkuntzetan egiten dira.

-  Dirulaguntzak: ohikoak, ez ohikoak eta San Agustin erabiltzeagatiko bekak

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Diru-laguntzak eta bekak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.8.4. PROGRAMAK ANTOLATZEA

Inauteriak, Martxoak 31, Euskal Astea, San Fausto Jaiak eta Gabonak. Guztiotan euskararen irizpidea izaten da kontuan, batez ere haur eta gazteei zuzendutako ekimenetan.




<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Kultura sailak prestaturiko programetan euskararen presentzia bermatzea eta areagotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.5. AZPIEGITURAK**

Merkatu plaza, Pinondo Etxea, Landakoko sotoak, Garai jauregia eta Ezkurdi aretoak.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Kultura sailak kudeaturiko azpiegituretan euskararen presentzia bermatzea eta areagotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.6. TAILERRAK**

-  Pinondon: labores eta enkajea.
-  Landakon: Triki, alboka,...
-  Ezkurdin: Pintura eta marrazketa

Musikako 3 irakasleak euskaldunak dira, marrazketakoa ere bai, baina gainerako seiak ez.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Kultura sailak antolatutako tailerretako irakasleak elebidun izatea
<b>ARDURADUNA</b>	Euskara, kultura eta hezkuntza batzordea
<b>HASIERA-DATA</b>	2014
<b>BETETZE-DATA</b>	2014
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.7. BILERAK LANKIDEEKIN**

Jaietako bilerak gaztelaniaz egiten dira, eta idatzizko materiala euskaraz edo gaztelaniaz lantzen da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Jaietako bilerak euskaraz egitea eta euskarazko idatziak erabiltzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria eta dinamizatzailea (E.U.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.8. TXOSTENAK**

Zenbait txosten euskaraz egiten dira, esaterako, BFARA bidaltzen den Martxoak 31ko dokumentazioa.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Zenbait txosten euskaraz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Dinamizatzailea (E.U.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.9. KOMUNIKAZIOAK**

Herritarrek egindako baimen-eskariei bi hizkuntzetan erantzuten zaie, euskaraz egiten diren eskariak barne.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Herritarrek euskaraz egindako eskariei euskaraz erantzutea, eta gainerakoei bi hizkuntzetan
<b>ARDURADUNA</b>	Dinamizatzailea (E.U.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.8.10. JENDAURREKO EKITALDIAK**

Jendaurreko ekitaldietako aurkezpenak euskaraz egiten dira gehien bat: San Faustoak.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea eta areagotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kultura teknikaria eta dinamizatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.9. GAZTERIA ETA KIROLAK

### 1.9.1. TXOSTENAK ETA HITZARMENAK PRESTATZEA

Txostenak, hitzarmenak, aktak eta diru-laguntzak bi hizkuntzetan egiten dira. Herritarrentzako jakinarazpenak bi hizkuntzetan edo euskaraz egiten dira. Urtean zehar bi kontratu bideratzen dira Gazteria eta Kirolak sailetik: Uda Topera eta Izotz Pista. Hurrengo kontratuko txostenak euskaraz egiteko konpromisoa hartuko da, halaxe, eta kontratazio sailarekin batera, esleipen-proposamena eta esleipen-dekretua euskara hutsez egin ahalko da. Kontratuetakoa administrazio baldintzen plegua eta plegu teknikoak ere euskara hutsez ateratzeko konpromisoa hartuko da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Txostenak, hitzarmenak, aktak eta diru-laguntzak bi hizkuntzetan egitea. Diru-laguntzetan eta hitzarmenetan ahalegin berezia egingo da euskarazko baldintzak betetzen ote diren ikusteko
<b>ARDURADUNA</b>	Gazteria eta kiroleko teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.9.2. KONTRATUETAKO TXOSTENAK

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Uda Topera eta Izotz Pista kontratuetakoa txostenak euskaraz egitea. Uda Topera eta Izotz Pista kontratuetakoa baldintza administratiboen plegua eta baldintza teknikoak euskaraz ateratzea, betiere, kontratazio sailarekin batera
<b>ARDURADUNA</b>	Gazteria eta kiroleko teknikaria eta kontratazio arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 1.10. TURISMO BULEGOA

### 1.10.1. EUSKARRIEN EDIZIOA, PUBLIZITATEA ETA MAILINGA

Bi hizkuntzetan (edo gehiago) egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Euskarriren edizioa, publizitatea eta mailinga euskaraz eta gaztelaniaz egitea, beste hizkuntza batzuetan egitearen kaltetan izan gabe
<b>ARDURADUNA</b>	Turismoko dinamizatzailerak eta informatzaileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.10.2. BILERAK HORNITZAILE ETA BESTELAKO ERAGILEEKIN

Euskaraz edo gaztelaniaz, solaskidearen arabera betiere.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Bilerak euskaraz edo gaztelaniaz egitea, solaskidearen arabera
<b>ARDURADUNA</b>	Turismoko dinamizatzailerak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.10.3. TXOSTENAK ETA PRENTSA OHARRAK

Bi hizkuntzetan egiten dira, baina hizkuntza-gaitasun arazoak daude euskarazkoa egite-rakoan.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Txostenak bi hizkuntzetan egitea, euskara zerbitzuaren laguntzarekin euskarazkoa prestatzerakoan
<b>ARDURADUNA</b>	Turismoko dinamizatzailerak eta informatzaileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 1.10.4. DATU-BASEA EUSKARAZ EGOTEA

Aplikazioa ele bietan dago, baina testu batzuk ez daude euskaratuta, kanpoko herrialde-takoak batez ere. Durangori buruzkoak euskaraz daude.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Datu-basea euskarazko testuekin hornitzea, batez ere Euskal Herriari buruzko datuak. Euskara zerbitzuak laguntza eskainiko du
<b>ARDURADUNA</b>	Informatzaileak eta dinamizatzailerak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.5. ZERBITZU TURISTIKOAREN KUDEAKETA. HARRERA EMOTEA TESTUEN BIDEZ.**

Erreserbak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiten dira gehien bat. Bezerorekiko harremanak, e-mailak eta abar.

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskararen eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Zerbitzu turistikoaren erreserbetan euskararen presentzia bermatzea eta, ahal bada, areagotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Informatzailea eta dinamizatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.6. ZERBITZU TURISTIKOAREN KUDEAKETA. HARRERA EMOTEA, AHOZKOA.**

Erreserbak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiten dira gehien bat.

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskararen eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Zerbitzu turistikoaren erreserbetan euskararen presentzia bermatzea eta, ahal bada, areagotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Informatzailea eta dinamizatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.7. ESTADISTIKA-TXOSTENAK**

Bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Estatistika-txostenak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Informatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.8. ZENBAIT TESTU EUSKARATZEA: ZUZENKETAK**

Turismo bulegoan zenbait testu euskaratzen dira, batez ere, euskarrietan erabiltzekoak. Testuak euskaratu ondoren udaleko euskara zerbitzura bidaltzen dira zuzenketak egite aldera.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Turismo bulegoko zenbait testu euskaratzea: diptiko, informazio turistikoa, publizitatea... Udaleko euskara zerbitzua testuon zuzenketaz arduratuko da
<b>ARDURADUNA</b>	Informatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.9. GOOGLE ETA FACEBOOK**

Bi hizkuntzetan (edo gehiago) egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Euskara eta gaztelania erabiltzea bietan
<b>ARDURADUNA</b>	Turismoko dinamizatzailerak eta informatzaileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**1.10.10. BISITA GIDATUAK**

Bi hizkuntzetan (edo gehiago) egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Bisita gidatuak euskaraz edo gaztelaniaz egitea, edo beste hizkuntza batzuetan
<b>ARDURADUNA</b>	Turismoko dinamizatzailerak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan



## 2. ZERBITZU EKONOMIKOAK

### 2.1. KONTUHARTZAILAZIA

#### 2.1.1. AURREKONTUAK ETA ORDENANTZA FISKALAK

Ele bietan ateratzen dira, irailetik eta abendura bitartean normalean. Saiatu beharra dago prozesuaren hasiera-hasieratik testuak bi hizkuntzetan egotea.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Aurrekontuak zein ordenantzak, hasiera hasieratik ateratzea bi hizkuntzetan, zinegotziek aukera izan dezaten euskarazkoa edo gaztelaniazkoa hautatzeko
<b>ARDURADUNA</b>	Kontu-hartzailea eta diru-bilketako teknikaria (X.E.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 2.1.2. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Hiru hilabeteetan behin egiten da, urtean lau aldiz alegia. Baina lehenengo hirurak mugimenduei buruzko informazioa jasotzen dute, ez dago testurik. Urte amaierako likidazioak, ordea, testua darama, baina antzerako gauzak jasotzen dira urterik urte. Orain arte likidazioaren gaineko txostena gaztelaniaz baino ez da aurkeztu.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Aurrekontuaren likidazioa euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztea
<b>ARDURADUNA</b>	Aurrekontuetako teknikaria (J.P.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 2.1.3. KONTU OROKORRA

Urtean behin aurkezten da. Testu luzea da, eta espezializatu samarra. 2013rako ez da aurreikusten testu osoa euskaraz jasotzea.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Kontu orokorra bi hizkuntzetan aurkeztea
<b>ARDURADUNA</b>	Kontu-hartzailea, aurrekontuetako teknikaria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2014
<b>BETETZE-DATA</b>	2014
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 2.1.4. TXOSTENAK

Urtean 5 txosten inguru egiten dira hazienda batzorderako edo osoko bilkurarako. Orain arte gaztelaniaz joan dira, baina konpromisoa hartu da datorren urtetik aurrera, txosten guztiak ez badira ere, batzuk euskaraz ere egiteko.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Zenbait txosten euskaraz ere egitea. Portzentajeak aterako dira urterik urteko progresioa ikusteko. Txostena luzea denean laburpena joko da: txostena euskaraz egiten bada, laburpena gaztelaniaz egingo da, eta alderantziz
<b>ARDURADUNA</b>	Kontu-hartzailea ea aurrekontuetako teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 2.1.5. FISKALIZAZIOA

Plantila bidez egin ahal dira, beraz, ez dago arazorik bi hizkuntzetan egiteko.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Plantilla elebidunak prestatu
<b>ARDURADUNA</b>	Kontu-hartzailea ea aurrekontuetako teknikaria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 2.2. KONTABILITATEA

### 2.2.1. IDATZIAK

- Abalak itzultzea: informeak eta dekretuak
- Kreditu aldarazpenak
- Gastuak
- Fakturak
- Nominak
- ADOak

Dokumentu gehienak PAC edo SICAP bidez egiten dira, beraz plantilak aldatu behar dira. Idazkariarekin hitz egingo da, protokolo bat ezarri eta euskara sailaren eta informatika sailaren artean koordinatzeko.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Plantillak aldatu, PACekoak eta SICAPekoak. Ramon idazkariarekin hitz egin informatika sailaren bidez koordinatu ahal izateko
<b>ARDURADUNA</b>	Idazkaria, administrariak (E.L./M.C.), informatika saila eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 2.3. DIRU-BILKETA

### 2.3.1. IDATZIAK

Bandoak, boletinerako iragarkiak eta weberako oharrak bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Bandoak, boletinerako iragarkiak eta weberako oharrak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Diru-bilketako teknikaria (X.E.) eta diru-bilketako eta isunetako administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 2.3.2. HERRITARREN ESKARIEI ERANTZUTEA

Euskaraz egindako eskariei euskaraz erantzuten zaie: jakinarazpenak, dekretuak, e.a.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Euskaraz egindako eskariei euskaraz erantzutea
<b>ARDURADUNA</b>	Diru-bilketako teknikaria (X.E.) eta diru-bilketako eta isunetako administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 3. ZERBITZU TEKNIKOAK

#### 3.1. TEKNIKARIAK

##### 3.1.1. HERRITARREN ESKARIEI ERANTZUTEKO SORTZEN DIREN ESPEDIENTEAK

Espedientea eskariaren arabera bideratzen da: eskaria gaztelaniaz egiten bada zirkuitu osoa gaztelaniaz egiten da, eta euskaraz eskatzen bada, euskaraz, bulego teknikoko ibilbideari dagokionez behintzat. Eskariari erantzuteko informe teknikoa egiten du dago-kion teknikariak eta, ondoren, dekretua egiten da. Gero, administrariak notifikatu egiten dute dekretuan jasotakoa oinarri harturik.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Euskaraz egindako eskariei euskaraz erantzun. Horretarako, espedienteari dagokion zirkuitua euskaraz egingo da
<b>ARDURADUNA</b>	Hirigintza-arkitektoa (I.Z.), ingeniaria (A.G.), ingeniari teknikoa (I.A.), toki agendako teknikaria (A.L.), udal eraikinen arkitektoak (P.E./A.B.), hirigintza aholkularia (I.E.) eta obretako inspektorea (G.O.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

##### 3.1.2. TXOSTEN TEKNIKOAK

Bulego teknikoko teknikari guztiek egiten dituzte txosten teknikoak. Orain arte gaztelaniaz egin dira. Ezinezkoa da plantilla bidez egitea, kasuistika guztiz ezberdinak ematen direlako. Proposamena da teknikari bakoitzak urtean txosten bat edo gehiago egitea euskaraz, gero euskara zerbitzuak erdaratuko lituzke.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Txosten teknikoak, apurka-apurka, euskaraz egitea. Teknikariek ez dute gaztelaniara itzuliko, euskara zerbitzua arduratuko da horretaz. Euskaraz egindako txosten kopurua konputatuko da urterik urteko progresioa neurtzeko. Hasiera batean, bolumen txikiko txostenak egingo dira euskaraz
<b>ARDURADUNA</b>	Hirigintza-arkitektoa (I.Z.), ingeniaria (A.G.), ingeniari teknikoa (I.A.), toki agendako teknikaria (A.L.), udal eraikinen arkitektoak (P.E./A.B.), hirigintza aholkularia (I.E.) eta obretako inspektorea (G.O.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

##### 3.1.3. OBRA LIZENTZIAK

Gaztelaniaz egiten dira. Kontua da ez dagoela euskaraz eskatzeko ohiturarik herritarren partetik.

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskarazko eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Herritarrek eskatzen dituzten obra-lizentziak euskaraz eskatu ditzaten bultzatzea eta, horren arabera, euskaraz erantzun
<b>ARDURADUNA</b>	Ingeniaria (A.G.) eta ingeniari teknikoa (I.A.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 3.1.4. JARDUERA BAIMENAK ETA IKUSKAPEN AKTAK

Eskatzailearen arabera bideratzen dira, euskaraz edo gaztelaniaz, bai jarduera-baimenak eta baita ikuskapen-aktak ere.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Jarduera-baimenak eta ikuskapen-aktak hizkuntza batean zein bestean egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Ingurumeneko teknikaria (A.S.) eta obretako inspektorea (G.O.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan




### 3.1.5. AGENDA 21EKO FOROAK

Arazo handi bat dago: foroko partaide batzuk euskaldunak dira, baina guztiak ez. Ondorioz, batzarrak gaztelaniaz egiten dira parte-hartzaileen arteko eztabaidak arintze aldera. Bat-bateko itzulpenak ere ez luke arazoa konponduko. Beraz, zerbait pentsatu beharra dago.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Agenda 21eko foroetan euskaraz ere jarduteko aukera bermatzea
<b>ARDURADUNA</b>	Toki agendako teknikaria (A.L.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 3.2. ADMINISTRARIAK

### 3.2.1. IDATZI ELEBIDUNAK

-  BAOrako iragarkiak
-  Bandoak
-  Gai-zerrendak eta aktak

Idatzi hauek bi hizkuntzetan joan behar dira ezinbestez, eta halaxe egiten da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Gai-zerrendak, aktak, bandoak eta BAOrako iragarkiak bi hizkuntzetan egin.
<b>ARDURADUNA</b>	Administrariak (M.J./A.T./E.Z.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 3.2.2. HIZKUNTZA BAKARREAN DOAZEN IDATZIAK

Notifikazioak, dekretuak eta gutunak, eskatzailearen arabera egiten dira: euskaraz edo gaztelaniaz. Kontua da aurreko zirkuitua euskaraz egin behar dela administrariak dekretua edo jakinarazpena euskaraz egin dezaten. Hortaz, honen arrakasta bulego teknikoko teknikariak egiten dituzten txostenek baldintzatua dago.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Notifikazioak, dekretuak, gutunak eta ofizioak euskaraz egitea eskatzaileak euskaraz egin badu eskaria
<b>ARDURADUNA</b>	Administrariak (M.J./A.T./E.Z.) eta udal teknikariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 4. UDALTZAINGOA

### 4.1. ADMINISTRAZIOA

#### 3.1.1. ADMINISTRAZIO-IDATZIAK

Udaltzaingoak erabiltzen dituen administrazio-idatzi batzuk ele bietan daude, baina gehienak gaztelania hutsez daude. Euskara zerbitzuaren laguntzarekin ahalegina egingo da idatzi guztiak plantilla bihurtzeko eta, horrela, ele bietan egongo dira. .

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Udaltzaingoaren idatziak ele bietan jartzea, plantilla bidez
<b>ARDURADUNA</b>	Udaltzain-burua eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 5. ASTARLOA KULTURGINTZA

### 5.1. ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

#### 5.1.1. GAI-ZERRENDAK, TXOSTENAK ETA AKTAK

Bi hizkuntzetan egiten dira, eta halaxe jasotzen dute batzarkideek.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Arte eta Historia Museoko batzarretako gai-zerrendak, txostenak eta aktak bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Museoko koordinatzailea eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.1.2. PRENTSA-OHARRAK ETA PUBLIZITATEA

Bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Arte eta Historia Museoko prentsa-oharrak eta publizitatea bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Koordinatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.1.3. ARGITALPENAK

Argitalpen batzuk gaztelaniaz ateratzen dira, beste batzuk euskaraz, eta batzuk bi hizkuntzetan.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Arte eta Historia Museoaren argitalpenetan euskararen portzentajea handitu
<b>ARDURADUNA</b>	Koordinatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.1.4. IKASTAROAK ANTOLATU

Arte eta Historia Museoak hainbat ikastaro antolatzen ditu urtean zehar. Orain arte, ia beti, gaztelaniaz izan dira. 2013rako asmoa da 3 ikastaro antolatzea euskaraz eta beste 3 gaztelaniaz. Ikastaro bakoitzak 8 hitzaldi ditu. Beraz, 2013an, 24 hitzaldi izango lirake euskaraz.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Arte eta Historia Museoak antolatzen dituen ikastaroetan euskararen presentzia handitu. Ikastaro kopurua zenbatu eta honenbesteko bat eskaini euskaraz
<b>ARDURADUNA</b>	Koordinatzailea
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**5.1.5. SQPR ADIERAZLEAK, DIRU-LAGUNTZEN TXOSTENAK ETA KREDITU ALDARAZPENAK**

Orain arte gaztelaniaz jasotzen dira, baina aurrerantzean euskaraz jasoko dira. Euskarazko txantiloia erabiliko da horretarako.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	SQRP adierazleak, diru-laguntzen gaineko txostenak, kreditu-aldarazpenak eta inkestaren gaineko txostenak euskaraz jasoko dira txantilo bidez
<b>ARDURADUNA</b>	Museoko administraria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**5.1.6. GAINERAKO IDATZIAK**

Ordainagiriak, notifikazioak,... euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira. Eskatzaileak euskaraz egin badu eskaria euskaraz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Ordain-agiriak, notifikazioak eta antzeko idatziak bi hizkuntzetan edo euskaraz egingo dira
<b>ARDURADUNA</b>	Museoko administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**5.1.7. INKESTAK**

Erabiltzaileentzako inkestak bi hizkuntzetan egoten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Museoko erabiltzaileei banatuko zaizkien inkestak bi hizkuntzetan egotea
<b>ARDURADUNA</b>	Administrariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**5.1.8. AURREKONTUEN LIKIDAZIOA**

Txantilo bidez egiten da, eta gaztelaniaz baino ez dago. Zerbitzu ekonomikoetako arduradunarekin hitz egingo da txantiloia euskaraz jartzeko.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Aurrekontuen likidazioa euskaraz ere egitea. Txantiloia prestatu
<b>ARDURADUNA</b>	Aurrekontuetako teknikaria (J.P.), administraria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 5.2. SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA

### 5.2.1. KOMUNIKAZIOA

Prentsa-oharrak, bazkideentzako jakinarazpenak, kartelak, programak, web orria,... bi hizkuntzetan egiten da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Prentsa-oharrak, bazkideentzako jakinarazpenak, kartelak, programak, web orria, e.a. euskaraz eta gaztelaniaz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	San Agustineko dinamizatzaila
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 5.2.2. BATZARRAK

Astarloa Kulturgintzako batzarretara eramaten diren txosten gehienak bi hizkuntzetan doaz, baina badaude gaztelania hutsez aurkezten direnak ere.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Astarloa Kulturgintzako batzarretara eramaten diren txosten guztiak bi hizkuntzetan egotea
<b>ARDURADUNA</b>	San Agustineko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 5.2.3. PROGRAMAZIOA

Haurrentzako programazioa euskaraz izaten da ia %100ean. Helduentzako, aldiz, heren bat inguru izaten da euskaraz programatzen dena.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Umeentzako programazioa euskaraz izatea eta helduentzakoan euskararen portzentajea handitzen joatea
<b>ARDURADUNA</b>	San Agustineko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2015
<b>BETETZE-DATA</b>	2015
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 5.2.4. HARREMANAK

Ahozkoa euskaraz edo gaztelaniaz izaten da, eta idatzizkoa bi hizkuntzetan.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Solaskideekiko idatzizko harremanak bi hizkuntzetan izatea
<b>ARDURADUNA</b>	San Agustineko arduraduna eta dinamizatzaila
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan



### 5.3. UDAL BIBLIOTEKA

#### 5.3.1. KANPO ETA BARNE HARREMANAK

Barruko harremanak, ahozkoak, euskaraz egiten dira eta kanpokoak solaskidearen arabera euskaraz edo gaztelaniaz. Idatzizko harremanak bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Beste erakundeekiko harremanak euskaraz edo bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Liburutegiko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.3.2. ERAKUNDE BARRUKO AKTAK

Udal bibliotekako batzarretako aktak euskaraz bakarrik jasotzen dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Udal bibliotekako bileretako aktak euskaraz jasotzea
<b>ARDURADUNA</b>	Liburutegiko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.3.3. BIBLIOTEKAKO HIZKUNTZA PAISAIA BATERATZEKO IRIZPIDEAK HARTZEA

Lehentasuna emango zaio euskarazko testuari: 1. goian euskarazkoa; 2. euskarazkoa letra handiagoa edo 3. euskarazkoa letra beltzez. Halaber ez da letra etzanik erabiliko, ezta maiuskulak ere.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Bibliotekako hizkuntza paisaia bateratzeko irizpideak hartzea. Lehentasuna emango zaio euskarazko testuari
<b>ARDURADUNA</b>	Liburutegiko arduraduna eta laguntzaileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

#### 5.3.4. ERABILTZAILEEKIKO HARREMANAK

Telefonozko harrera eta aurrez aurrekoan, lehen hitza euskaraz. Gero erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzaren arabera egingo da.

<b>HELBURUA</b>	Herritarren euskarazko eskaria handitzea
<b>EKINTZA</b>	Aurrez aurreko harrera eta telefonozkoan, lehen hitza, euskaraz
<b>ARDURADUNA</b>	Liburutegiko arduraduna eta laguntzaileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**5.3.5. TAILERRAK**

Hiruhilero ipuin kontaketak eta irakurleen txokoak antolatzen dira, gazte zein helduentzako. Gazteentzako (<16) euskaraz eskaintzen dira eta, aldiz, helduentzat irakurketa txokoak elebidun baina ipuin kontaketak gehienbat gaztelaniaz.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Helduentzako ipuin kontaketak euskaraz ere eskaintzea
<b>ARDURADUNA</b>	Liburutegiko arduraduna
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 6. DURANGO KIROLAK

### 6.1. HARREMANAK ERABILTZAILAIEKIN

Erabiltzaileek aukeratutako hizkuntzaren arabera egiten dira. Euskaraz egindako eskari, kexa, iradokizun eta holakoei euskaraz erantzuten zaizkie.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Erabiltzaileekiko harremanak erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan bideratzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kiroletako teknikaria eta Durango Kirolak-eko langileak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 6.2. ERAKUNDE AUTONOMOAREN BATZARRAK

Aktak eta txostenak gaztelaniaz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Erakunde Autonomoko batzarretako dokumentazioa bi hizkuntzetan egotea, aktak eta txostenak barne
<b>ARDURADUNA</b>	Kiroletako teknikaria eta administraria (M.E.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 6.3. DURANGO KIROLAK BARRUKO DOKUMENTAZIO IDATZIA

Departamentu barruan geratzen den ia dokumentazio guztia gaztelaniaz dago.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Departamentu barruko dokumentazioa euskaraz jasotzea MIDENET egitasmoaz baliatuz
<b>ARDURADUNA</b>	Kiroletako teknikaria eta harrerakoa (I.I.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2014
<b>BETETZE-DATA</b>	2014
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 6.4. HIZKUNTZA PAISAIA

Errotulazioa bi hizkuntzetan dago, erabiltzaileek darabiltzaten softwarea ere bai, baina barruko softwarea (Omesa) gaztelaniaz dago.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Hizkuntza Paisaia ele bietan egotea euskarari lehentasuna emanez eta administrazio barruko softwarea euskararako egokitzea
<b>ARDURADUNA</b>	Kiroletako teknikaria eta datu-prozesuko teknikaria (J.I.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**6.5. BEGIRALEAK (UDALEKOAK ZEIN KONTRATATUAK)**

Erakundeko begiraleak eta begirale kontratatuak daude. Etxeko begiraleekin euskaraz dihardute umeeekin, eta hasita daude dagoeneko nagusiekin ere euskara erabiltzen.

Enpresako begiraleei dagokienez, guztira 12 dira, hauetako 7 euskaldunak direlarik eta 5 erdaldunak. Enpresako arduradunei esanda dago zerbitzua bi hizkuntzetan eman behar dutela, eta horretarako neurriak hartu behar direla. Proposamena da programa bat zehaztea enpresarekin dedikazio handia eta hartzaile/erabiltzaile asko dituzten begiraleak euskalduntzeko. Iñaki Inzak koadro bat prestatuko du eta bertan honakoak jasoko dira: zenbat begirale kontratatuta dagoen, bakoitzaren hizkuntza gaitasuna, dedikazioa, hartzaile-kopurua, e.a. Lehentasun nagusia da hartzaile/erabiltzaile asko eta dedikazio handia duten begiraleengan eragitea. Bigarren maila baten geratuko lirateke astean bizpahiru ordu baino ematen ez dituzten begiraleak.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Durango Kirolak-eko begiraleak elebidun izatea eta ematen dituzten jarduerak euskaraz ematea. Hartzaile erdaldunei azalpenak gaztelaniaz emango zaizkie, azalpen pertsonalizatuak alegia
<b>ARDURADUNA</b>	Kiroletako teknikaria eta begiraleak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 7. MUSIKA ESKOLA

### 7.1. KOMUNIKAZIOAK

Honakoak egiten dira: Komunikazio ofizialak, Musika eskolarenak, zerbitzuen karta (weba), irakasle bakoitzak egiten duena, kartelak... Euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Musika Eskolako kanporako komunikazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria eta irakasleak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 7.2. KOMUNIKAZIO-EUSKARRIEN IRIZPIDEAK BATERATU

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak bateratu
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria, irakasleak, administraria eta euskara zerbitzua
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 7.3. KLASEAK

Klaseak, %90an, euskaraz ematen dira.

<b>HELBURUA</b>	Udal programen euskarazko eskaintza handitzea
<b>EKINTZA</b>	Musika Eskolako klaseak euskaraz ematea
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria eta irakasleak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 7.4. TUTORETZAK

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira, gurasoen arabera.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Tutoretzak euskaraz edo gaztelaniaz egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria eta irakasleak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 7.5. BARTOLOME ERTZILLA ERAKUNDE AUTONOMOAREN BATZARRAK

Gai-zerrendak, aktak eta dokumentazioa bi hizkuntzetan egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Gai-zerrendak, aktak eta dokumentazioa bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria eta administraria
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## **7.6. MUSIKA ESKOLA BARRUKO BILERAK**

Ahoz eta idatziz gaztelaniaz egiten dira.

<b>HELBURUA</b>	Euskara lan-hizkuntza bilakatzea
<b>EKINTZA</b>	Aktak euskaraz idaztea eta ahozko jarduna euskaraz egin dadin bultzatzea
<b>ARDURADUNA</b>	Musika eskolako zuzendaria eta irakasleak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

## 8. KOORDINAKETA

### 8.1. BATZARRAK ANTOLATU ETA KOORDINATU

Batzarrotan euskaraz eta gaztelaniaz egiten da: parte-hartzaile batzuk euskaraz hitz egiten dute eta beste batzuk erdaraz, eta ez da arazorik sortzen denek dutelako ulertzeko gaitasun nahikoa.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Erakunde Autonomoetako batzarrotan euskaraz zein gaztelaniaz egiteko modua bermatzea, eta euskarazkoa indartzea
<b>ARDURADUNA</b>	Erakunde autonomoetako gerentea eta erakunde bakoitzeko zuzendariak
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 8.2. TXANTILOIAK ETA DOKUMENTUAK PRESTATU

Dokumentu motak: prozesu-fitxa, inkestak, adierazleak jasotzeko orriak... Bi hizkuntzetan egiten dira arazo barik.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Txantiloiak eta gainerako dokumentuak bi hizkuntzetan ematea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (J.L.T.) eta kalitatekoa (J.S.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 8.3. PLAN ESTRATEGIKO ETA URTEKO PLANEKO DOKUMENTUAK

Baterako zein besterako dokumentuak bi hizkuntzetan aurkezten dira, udal euskaltegiaren laguntzarekin zenbait kasutan.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Plan Estrategikoa eta urteko plana bi hizkuntzetan aurkeztea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (J.L.T.), kalitatekoa (J.S.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

### 8.4. AURKEZPENAK

Bi hizkuntzetan egiten dira. Power point bidezko aurkezpenak euskara hutsez egin ahal dira eta gero azalpenak gaztelaniaz eman.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Erakunde autonomoetako aurkezpenak euskaraz edo bi hizkuntzetan egitea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (J.L.T.) eta kalitatekoa (J.S.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**8.5. EFQM: PRESTAKUNTZA TEORIKOA ZEIN PRAKTIKOA**

EFQM eredua ezartzearen inguruan prestakuntza teorikoa zein praktikoa ematea.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	Prestakuntza teorikoa zein praktikoa ematea EFQM eredua ezartzearen inguruan
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (J.L.T.) eta kalitatekoa (J.S.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan

**8.6. EFQM MEMORIA IDAZTEA**

EFQM memoria euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten da.

<b>HELBURUA</b>	Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea
<b>EKINTZA</b>	EFQM memoria euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztea
<b>ARDURADUNA</b>	Administraria (J.L.T.) eta kalitatekoa (J.S.)
<b>HASIERA-DATA</b>	2013
<b>BETETZE-DATA</b>	2013
<b>JARRAIPENA</b>	Urteko kudeaketa planetan



## 2. EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO NEURRIAK

Durangoko Udalak irizpide zehatzak hartuko ditu euskararen erabilpenari buruzko ondorengo esparru hauetan:

### 2.1. LANGILEEN HIZKUNTZA EZAGUTZA, PRESTAKUNTZA ETA KONTRATAZIOA

#### 2.1.1. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

**LANPOSTUEN ZERRENDA** (ikus eranskina): Durangoko Udalaren hizkuntza-egoera zein den erakusten duten tauletan lanpostuari eta langileari buruzko ezaugarriak agertzen dira: lanpostuaren izena, kodea, kidegoa, taldea, hizkuntza eskakizuna eta, hala balegokio, derrigortasun-data; halaber, lanpostua betetzen duen langilearen izen-deiturak, jaiotze data, NAN zenbakia, egiaztatuta duen hizkuntza eskakizuna edota euskara-maila.

**LANPOSTU BERRIAK:** arreta berezia jarriko da lanpostu berriak sortzen direnean. Euskara teknikariak informea helaraziko dio ogasun eta pertsonal batzordeari sortuko den lanpostuari zein hizkuntza eskakizun dagokion esateko.

Halaber, derrigortasun-data jartzea ere proposatuko du lanpostuaren ezaugarriek halaxe eskatzen dutenean. Euskara teknikariak proposamena egin ostean, eta Udalak erabakia hartu baino lehen, txostena eskatuko zaio HPSri.

**HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK BATERATZEA ETA EGOKITZEA:** Badira talde berekoak izan arren, hizkuntza eskakizun bera ez duten zenbait lanpostu. Euskara zerbitzuak proposamena egingo du talde bereko lanpostuek hizkuntza eskakizuna bera izan dezaten, betiere, lanpostuaren jabe denari eragiten ez dion bitartean. Halaber, lanposturen batek dagokiona baino hizkuntza eskakizun baxuagoa baldin badu, berau aldatzea proposatuko da. Aldaketa guzti hauek burutu baino lehen, txostena eskatuko zaio HPSri.

#### 2.1.2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

**EUSKARA IKASTAROAK:** Lanpostu guztien derrigortasun-data iraungita dago dagoeneko. Beraz, une honetan, ez da langilerik eskolaratzen lanorduetan. Euskara ikastaroetara joaten diren langile bakanak lanorduz kanpo eta euren euskara maila hobetzeko doaz.

Honez gain, Durangoko Udalak euskara ikasteko aukera eta erraztasunak emango dizkie Euskara Planean sartuta ez dauden langileei.

**BESTELAKO IKASTAROAK:** Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntza-gaitasun nahikoa duten langileentzat. Prestakuntza-eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza. Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoetakoek bezain erakargarriak izan beharko dute.

**TREBAKUNTZA PERTSONALA:** Aurreko urteetan egindakoari jarraipena emanez, trebakuntza pertsonala indartuko da. Hots, trebakuntza-saioak egin beharko dira Udaleko administrazio-atal guztietako langileekin. Prestakuntza pertsonala izango da eta langile bakoitzak egiten dituen lan-jardunei lotuta egongo da, eta epe mugatua izango dute. Langile bakoitzaren lan-jardunetara mugatuta egoteak esan nahi du langileari bere lana burutzeko behar duen laguntza eskainiko zaiola, eta laguntza hau mugatua izango da denboran: langilea behar den moduan prestatuta dagoenean amaitu egingo dira trebakuntza-saioak.

Zeintzuk langile sartuko diren trebakuntza-saioetan urteko kudeaketa planean zehaztuko da. Egutegia ere zehaztu beharko da, baina irizpide nagusia hauxe izango da: trebakuntza-saioek hasiera data eta amaiera data zehatza izango dute. Trebatzailea ez da udaleko langileak, aldi oro, alboan izango duen makulua. Prestakuntza pertsonala amaitutakoan, eta salbuespenak salbuespen, langileak bere kabuz moldatu behar du.

**BALIABIDE PERTSONALAK:** "Hizkuntza normalkuntzako teknikaria" lanpostua hornitzen ez den bitartean "trebatzailea" beharko da.

### 2.1.3. UDAL LANGILEEN KONTRATAZIOA

Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Durangoko Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari. Horrela bada, 86/1997 Dekretuan ezarritako jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan eta atal orokorretan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da alde zurretik.

Atal berezietako lanpostuak betetzerakoan, udalak kasuan-kasuan erabakiko du derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezarri behar den ala ez. Horrela, lanpostuari derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezartzea erabaki ezean, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

**1. HE ETA 2. HE: %10; 3. HE ETA 4. HE: %20**

Durangoko Udalak, bere Erakunde Autonomoek eta enpresa publikoek aldi baterako langileak kontratatu behar badituzte azterketa, lan-poltsa edo bestelako sistemaren baten bidez, udaleko lanpostuen zerrendan maila bereko lanpostuei eskatzen zaizkien euskararen ezagutza bera eskatuko zaie aipatutako lanpostu horiek beteko dituztenei.

Oposaketa-aldiko froga eta azterketa guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera emango zaie hautagai guztiei.

## 2.2. HARREMANAK

### 2.2.1. HARREMANAK ADMINISTRATUEKIN

Udalak honako oinarritzko hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie bere herritarrei:

- Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.
- Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- Udalaren osoko bilkura eta batzarretan, erakunde autonomoetako gobernu batzordeetan eta enpresa publikoen administrazio kontseiluetan, euskaraz egiteko eskubidea eta konpromisoa.
- Udalak edo Erakunde Autonomoek antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen ikastaroen %50a, gutxienez, euskaraz izateko eskubidea.
- Udalaren menpe dauden udal zerbitzuak zeharka kudeatzen dituzten enpresek euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea bermatuko dute.
- Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen foro eta kontseiluetan euskaraz egiteko eskubidea.

Halaber, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdunek euskaraz edo gaztelaniaz jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

Udal administrazioak ontzat hartuko ditu pertsona fisikoengandik eta juridiko pribatuegandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

Udalak herritarrei bidalitako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz joango dira. Herritarrek eskaria euskaraz egiten duenean euskaraz erantzungo zaio.

### **2.2.2. HARREMANAK INSTITUZIO EDO ERAKUNDE OFIZIALEKIN**

Durangoko Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die herri-administrazio eta erakunde ofizialei. Erakunde ofizial hauetakoren batek eurekiko komunikazioa euskaraz izatea eskatuko balu, Durangoko Udalak halaxe egingo luke.

Halaber, euskara ofiziala den eremu erakunde ofizialek nahiz administrazio publikoek igorritako dokumentazio gaztelania hutsean jasoko balitz, interesatuari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean, akatsa zuzendu dezala edo dagozkion dokumentuak erantsi ditzala. Hala egiten ez badu, eskaria ez dela kontuan hartuko adieraziko zaio, betiere, herri-administrazioen erregimen juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua ezartzen duena aintzat hartuta.

### **2.2.3. JENDAURREKO EKITALDIETAN**

Durangoko Udaleko kargu politikoek eta enplegatuek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dute Udalaren ekintza publikoetan. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten badute, euskarari emango diote lehentasuna euskararen udal ordenantzan xedatutakoaren arabera.

Era berean, Udalak, ahal den guztietan, halako ekitaldiak bideratzeko izendatuko dituen hizkuntza-gaitasun egokia dutenak izan daitezen zainduko du.

### **2.3. UDAL BATZARRAK, AKTAK ETA DOKUMENTAZIOA**

Durangoko Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan, informazio batzordeetan, erakunde autonomoetako gobernu batzordetan, enpresa publikoen administrazio kontseiluetan eta udal kontseilu eta foroetan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezten.

Durangoko Udalaren osoko bilkura, gobernu batzorde eta informazio batzordeetako deialdiak eta aktak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Batzarrotako dokumentazioa euskaraz ere aurkeztuko da, kontuan izanda betiere Udaleko Euskara Planak ezarritako lehentasunak eta epeak administrazio barruko euskararen erabilera sustatzeari dagokionez.

### **2.4. UDAL ERREGISTROKO AGIRIAK**

Udaletxera sartzan eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira udal erregistroan. Agiriak ele bietan idatzita badaude, euskaraz inskribatuko dira.

Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta gainerako dokumentuak ele bietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak euskaraz egin badu eskaria. Kasu honetan, ziurtagiria euskaraz egingo da.

### **2.5. UDALAREN EBAZPENAK ETA ARGITALPENAK**

Udal ebazpen eta argitalpen guztiak ele bietan argitaratuko dira eta, betiere, euskarari emanez lehentasuna. Esaterako: bandoak, ordenantzak, ebazpen eta erabakiak, iragarriak, udalaren web orria, aldizkariak, inkestak (ahoz zein idatziz), berripaperak, gida eta antzeko argitalpenak.

## 2.6. IDAZKUNAK, ERROTULAZIOA, LEKU-IZENAK ETA BIDE-SEINALEAK

**IDAZKUNAK ETA ERROTULAZIOA:** Durangoko Udalak era zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen sail, departamentu eta bulegoetako idazkunak euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira eta, betiere, euskarari emango zaio lehentasuna. Udaleko zerbitzuetako idazkun, errotulu eta seinaleak esaten denean honakoez dihardugu:

- a) Bulego eta langeletako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzekoak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkun serigrafiazkoak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.

**LEKU-IZENAK:** kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreka izenak, ofizialki, euskaraz idatziko dira, eta halaxe agertuko dira errotulu eta informazio-paneletan. Leku-izenok udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera-arauak errespetatuz.

Leku-izenen izen ofizialak ezarri aurretik, Udalak, Durangoko toponimia aztertu duen ikerketari jarraituko dio eta, halaber, irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari.

Halaber, udalerrian egin daitezkeen hirigintza-proiektuen ondorioz, Durangoko Udalak egoitza-gune berriak, kaleak, plazak edo antzekoak izendatu behar baditu, Euskaltzaindiaren onomastika batzordearen diktamena eskatuko du izendapena egin baino lehen.

**BIDE-SEINALEAK:** Trafiko seinale, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko araei jaramon eginez. Kasu guztietan, euskarari emango zaio lehentasuna.

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren errotulazio, iragarki eta seinaleak euskaraz idatziko dira: "merkatua/mercado", "autobusa/autobus", "ludoteka/ludoteca", "aparkalekua/aparcamiento."

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idatzi ez arren zabalera handia duten hitzak edo piktogramez baliatuz adierazi daitezkeenak euskaraz joango dira: "isilik", "irteera/sarrera", "txakurrik ez", eta antzekoak.

## 2.7. ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK

Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen eta enpresa publikoen kontratazio-organoek nahitaez sartuko dituzte administrazio kontratuetako karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-baldintzak, hala nola, obra-kontratuetan, herri-lanen emakidetan, hornikuntza-kontratuetan, aholkularitza eta zerbitzu kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta kontratu mistoetan<sup>1</sup>.

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu.

## **2.8. UDAL INSTALAZIOAK EDO HERRI-LURRA ERABILTZEA**

Udal instalazioak erabili edota udal diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarte eta entitateek euskara erabili beharko dute ekimena iragartzeko erabiliko dituzten euskarrietan eta baita ahozko komunikazioetan ere, esaterako, ekitaldia aurkezterakoan edota burutzen ari denean.

Herri-lurra edo/eta udal instalazioak erabiltzeko baimena eskatzen duten instituzio zein enpresa pribatu eta norbanakoek, euskara edo euskara eta gaztelania erabiliko dituzte jarduera iragartzeko orduan eta baita berau burutuko dutenean ere. Hortaz, megafonia, sarrerak, eskuko programak, ekitaldiaren aurkezpena eta gainerako euskarri guztiak, ahoz zein idatziz, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz joan beharko dira.

Ezinbesteko baldintza hau esleipena egin edo baimena ematerakoan jakinaraziko zaio eskatzaileari.

## **2.9. DIRU-LAGUNTZAK**

Durangoko Udalak, euskara sailaren bitartez, diru-laguntza deialdiak esleituko ditu euskararen sustapenaren inguruko zenbait alorretan, esaterako: euskara sustatzeko ekimenetarako, euskara darabilten aldizkarietarako, errotuluak eta web orriak euskaraz jartzeko eta euskalduntze-alfabetatze bekak banatzeko.

Durangoko Udalak, hala deritzonenean, diru-laguntza nominatiboak esleituko ditu euskararen sustapenaren inguruan. Dirulaguntza hauek lankidetzahitzarmenaren formulapean egingo dira.

Diru-laguntza deialdiak zein diru-laguntza nominatiboak Durangoko Udaleko aurrekontuetan jasoko dira, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko.

Durangoko Udaleko sail ezberdinek deituriko dirulaguntza-deialdien onuradunek, ezinbestez, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute argitaratzen dituzten iragarki, ohar, jakinarazpen eta holakoetan<sup>ii</sup>. Betebehar hau jakinarazi eta jaso egingo da dirulaguntza deialdiak edo/eta lankidetzahitzarmenak egiten direnean.

Dirulaguntza-deialdietako balorazio-irizpideetan puntu osagarriak esleituko zaizkie euskaraz burutuko diren jarduera eta programei.

Durangoko Udalak herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarten euskararen erabilera indartzeko, laguntza eta aholkularitza teknikoa eskainiko die udaleko euskara zerbitzuaren bitartez. Esaterako, testu laburrak euskaratzeko eta zuzenketak egiteko, diru-laguntzen inguruko aholkularitza emateko, e.a.

## **2.10. UDALAK ANTOLATURIKO IKASTARO, TAILER ETA HITZALDIK**

Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen sail guztiek euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, immigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

### **2.11. BARNE-HARREMANAK**

Ekimenak prestatuko dira udaleko langile euskaldunek euskaraz jardun dezaten euren artean ahozko eta idatzizko barne-harremanetan.

### **2.12. BALIABIDE INFORMATIKOAK**

Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko ahalegina egingo da, beti ere, euskarazko bertsioek erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Windows eta Office programen euskarazko bertsioak, apurka-apurka, sartzea aurreikusten da. Administrazio publiko eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatuko dira, esaterako: euskalterm, administrazio-idazkiak, hiztegiak.

### **2.13. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA**

Durango Udalak, euskara sailaren bitartez, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa jarriko du martxan. Horretarako, prozedura bat finkatuko du hizkuntza eskubideen urraketari konponbideak bilatzeko eta erantzukizuna duten administrazio eta erakundeen arteko lankidetzaz bideratzeko.

---

<sup>i</sup> Durango Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-irizpideei buruzko erabakia, Euskara Plana 2008-2012an jasoa (3.3. artikulua).

<sup>ii</sup> Durango Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko araudiaren 6.8 artikulua, "onuradunen betebeharrak" izenekoak.